



# ARTEEI ETA KULTURA INDUSTRIEI BURUZKO ESTADISTIKA

2017

## MUSIKA ARETO PRIBATUEN GALDESORTA (G.08)

Mila esker eragiketa estatistikoan parte hartu eta galdesorta honi erantzuteagatik. Jarraian, zure enpresa/erakundearen jarduera eta bolumen ekonomikoari buruzko galdera batzuk egingo dizkizugu. Gogoratu eskatzen den informazioa 2017 urteari dagokiona dela.

Galdesorta betetzean zalantza edo zailtasunen bat baduzu, hots egin Siadecoko 943.310034 telefono zenbakira edo bidali mezu bat [kulturabehatokia@siadeco.eus](mailto:kulturabehatokia@siadeco.eus) helbide elektronikora, gure lantaldeko pertsona batek lagundu zaitzan.

**LEGE OHARRA:** Zure datuak Kulturaren Euskal Esparru Estatistikoaren direktorioak eta erroldak izeneko fitxategian jasoko dira. Hala nahi izanez gero, datuok eskura izan, zuzendu, ezeztatu eta datuoi aurka egiteko eskubideez balia zaitezke, horretarako Kultura Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzari idatzi bat bidaliz (Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).



ID (ez aldatu) \_\_\_\_\_

## I. ENPRESA/ERAKUNDEAREN DATUAK

Egiatzatu mesedez, ondoren azaltzen diren datuak zuzenak direla eta hala ez badira, alda itzazu. Informaziorik gabeko atalak osatu.

0.1. Erakunde, enpresa edo pertsona fisikoaren izena:

0.2. IFK/NA:

0.3. Helbidea:

0.4. Udalerria:

0.5. Posta kodea:

0.6. Telefonoa:

0.7. Faxa:

0.8. Posta elektronikoa:

0.9. Web orria:

0.10. Jardueraren hasiera urtea:

0.11. Titulartasuna:

Publikoa

Erakunde Autonomoa/Fundazioa/Sozietate Publikoa

Pribatua

Sozietate Anonimoa (S.A)

Sozietate Mugatua (S.M.)

Sozietate Zibil Partikularra (S.Z.P.)

Kooperatiba

Autonomoa

Beste bat:

Elkartea/Fundazioa

### Titulartasunari buruzko oharrak:

- **Publikoa:** Administrazio publikoak zentzu zehatzean.
- **Erakunde Autonomoa/Fundazioa/Sozietate publikoa:** Administrazioaren menpeko era guztietako erakunde autonomoak, baita entitate publikoek % 100ean partaidetutakoak ere; nagusiki kapital ekarpen publikoa duten erakunde pribatuak, eta beraien fundazio ondarea edota zuzendaritza- edo gobernu- partaidetza nagusiki publikoa dutenak.
- **Pribatua:** Irabazi asmoa duen edozein motatako entitate pribatua hartzen du barne, nahiz eta interes orokorreko helburuak izan (S.A., S.M., SCP, Kooperatibak...).
- **Elkartea/Fundazioa:** Irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuak, nagusiki kapital ekarpen pribatua dutenak, eta beraien fundazio ondarea edota zuzendaritza- edo gobernu- partaidetza nagusiki pribatua dutenak.



## II. JARDUERA

### 1. Adierazi 2017an GUZTIRA PROGRAMATUTAKO KONTZERTU KOPURUA:

**Oharrak:**

- Kontzertu kopurua kalkulatzeko, erakunde/enpresaren berak bakarrik programatutako kontzertuak, beste agenteekin batera koproduzitutakoak eta jaialdien barnean programatutakoak ere kontuan hartu behar dira.
- Koproduzitutako kontzertuak, zenbait erakunde publikok edo pribatuk elkarrekin antolatzen dituztenak dira, ekimenak, erantzukizunak eta arriskuak partekatuz.
- Jaialdi batean antolatutako kontzertuak, eremu desberdinetan antolatu ohi direnak (antzoki, kultur etxe, kale eta plaza, eliza,...) eta iraupen mugatua dutenak dira.
- Kontzertuaren definizioa: toki itxi batean edo aire zabalean musika-konposizio bat edo batzuk eskaintzeko asmoarekin eta nolabaiteko batasunarekin antolatzen diren ikuskizunak dira kontzertuak. Estatistika egiteko, honako irizpide hauek ezarri dira:
  - Kontzertu bereziak, iraupen luzeko jaialdi edo ekitaldi batean egindako emanaldietako bakoitza dira eta kontzertu gisa kontsideratu behar dira.
  - Kontzertu bakarra bezala hartu behar da, berriz, ikuskizun berean eskaintzen direnak, nahiz eta artista edo musika-talde desberdinek pieza gutxi batzuk jo.

### 2. Adierazi 2017an izandako IKUSLE KOPURUA GUZTIRA:

**Oharra:** Ikusle kopurua kalkulatzeko, erakunde/enpresak berak bakarrik programatutako kontzertuetako ikusleak, beste agenteekin batera koproduzitutako kontzertuetan izandakoak eta jaialdietakoak ere hartu behar dira kontuan.

### 3. Banatu (%etan) 2017an PROGRAMATUTAKO KONTZERTUAK artista/taldearen jatorriaren arabera.

	Programatutako kontzertuak
EAEkoak	%
Estatuko gainerako erkidegokoak	%
Atzerrikoak	%
Nazio anitzekoak	%
GUZTIRA	%

*Batura %100 dela egiaztatuta*

### 4. Banatu (%etan) 2017an PROGRAMATUTAKO KONTZERTUAK musika motaren arabera.

	Programatutako kontzertuak
Musika klasikoa	%
Musika garaikidea (pop-a, rock-a, heavy-a, rap-a, jazz-a, funk-a, fusioa, reggaea,...)	%
Musika elektronikoa (dance-a, tecno-a, house-a,...)	%
Herri musika eta tradiziozko Euskal musika	%
Munduko musikak	%
Musika espirituala (erlijiosoa, korala, gospela,...)	%
Bestelakoak	%
GUZTIRA	%

*Batura %100 dela egiaztatuta*



## 5. 2017an PROGRAMATUTAKO JAIALDIAK zerrendatu:

### Oharrak:

- Jaialdi batean antolatutako kontzertuak, eremu desberdinetan antolatu ohi direnak (antzoki, kultur etxe, kale eta plaza, eliza,...) eta iraupen mugatua dutenak dira.
- Ez da jaialdi kontsideratuko herriko jaietako zein bestelako festa egunetako musika programazioa.

Jaialdiaren izena	Kontzertu kopurua	Ikusle kopurua

## 6. Adierazi 2017an KOPRODUZIOAN EGINDAKO KONTZERTU KOPURUA:

- **Oharra:** Koproduzitutako kontzertuak zenbait erakunde publikok edo pribatuk elkarrekin antolatzen dituztenak dira, ekimenak, erantzukizunak eta arriskuak partekatuz.

## 7. Jarri zerrendan 2017an beste erakunde batzuekin KOPRODUZIOAN egindako ziklo, jaialdi eta bestelako programazioak, erakunde koproduzitaileak eta bakoitzaren kontzertu kopurua.

Ziklo / jaialdi / bestelako programazioak	Erakunde koproduzitailea	Programatutako kontzertu kopurua



### III. LANGILEAK

---

#### 8. Banatu 2017ko LANGILE KOPURUA GUZTIRA, lanaldi osora kalkulatuta, funtzio profesionala eta generoaren arabera:

	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Langile kopurua guztira
Zuzendariak			
Teknikariak			
Kudeaketa/Administrazioa			
Garbiketa			
Mantenua			
Segurtasuna			
Besterik			
<b>GUZTIRA</b>			

**Oharra:** Langile kopurua lanaldi osora kalkulatzeko prozedura ondorengoa izango da:

Langile kopurua lanaldi osora kalkulatuta = Langile guztiek lan egindako egun guztien batura lanaldi osotara eramanda / 365 egun

Adibidea: 2017 urtean zehar 22 pertsona aritu dira lanean baina lanaldi ezberdinekin. Pertsona bat urteko 365 egunetan lanaldi osoan aritu da, beste bat 160 egunez lanaldi erdira. Eta gainerako 20 pertsona guztira 975 egunez aritu dira lanean (euren kontratu guztien batuketa). Langile kopurua guztira lanaldi osotara kalkulatua ondorengoa litzateke:

- Lehen pertsonak lan egindako egunak 365, horrela  $365/365 = \text{langile } 1$ .
- Bigarren pertsonak lan egindako egunak, 80 (160 egunez lanaldi erdira),  $80/365$  eginez = 0,21 langile
- Gainerako 20 pertsonak lan egindako egunak 975,  $975/365$  eginez = 2,67 langile

- **Langileak guztira lanaldi osotara kalkulatua=  $1+0,21+2,67 = 3,88$**



## IV. JARDUERA EKONOMIKOA

### 9. Banatu erakunde/enpresaren fakturazio bolumena, jarduera nagusiaren eta gainontzekoen arabera (baldin eta badituzuen).

	Fakturazioa guztira
Musika programazioa	%
	%
	%
	%
	%
<b>GUZTIRA</b>	<b>%</b>

*Batura %100 dela egiaztatu*

### 10. Adierazi erakunde/enpresaren 2017ko GASTUAK GUZTIRA (musika programaziorako eta antolatutako bestelako jardueretarako), ondorengo kontzeptuei jarraiki:

Gastuaren kontzeptua	Gastuak 2017
Pertsonal gastuak (langileei buruzko III. atalean jasotakoei dagokiena)	€
Jarduera	€
Bestelako gastuak	€
<b>GUZTIRA</b>	<b>€</b>

### 11. Adierazi erakunde/enpresak 2017an izandako DIRU-SARRERAK GUZTIRA (musika programaziora eta antolatutako bestelako jarduerari lotuta), ondorengo kontzeptuei jarraiki:

**Oharrak:**

- Administrazio Publikoen ekarpenak: Transferentziak eta diru-laguntzak barne, baita 2017. urtean hitzemandakoak ere, nahiz eta beranduago ordaindu.

Diru-sarreraren kontzeptua	Diru-sarrerak 2017
Jarduera	€
Administrazio Publikoen ekarpenak	€
Bestelako diru-sarrerak	€
<b>GUZTIRA</b>	<b>€</b>



**12. Jarraian, emandako datuek ulertzen lagunduko duen iruzkin edo bestelako oharren bat idatzi dezakezu.**

Behin galdesorta bete ondoren, gorde artxiboa ordenagailuan eta mezu bati atxikirik bidali ondorengo helbide elektronikora: [kulturabehatokia@siadeco.eus](mailto:kulturabehatokia@siadeco.eus)

Mila esker zure lankidetzagatik.